

Langile indarra, aurrera!
¡A por lo nuestro!

PONENTZIA
FEDERAZIOKO IDAZKARITZAK ONARTUA



II. KONGRESUA
2017·12·19
DONOSTIA

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

1. EGINDAKOAREN BALORAZIOA ETA EGOERAREN DIAGNOSTIKOA5

1. Mutazio sakonak eta joera kezkagarriak enpleguan5
2. Botere sindikala ahultzeak itsutzen du patronala7
3. Buru-buruan egon gara enpleguaren eta enpresen etorkizunaren aldeko borrokan8
4. Negoziazio kolektiboaren bidez lan-baldintza duinak sortuz9
5. Industria-politika esaten diotena ez da propaganda besterik10
6. 4.0 industria... enplegurik gabeko industria ote jomuga?11
7. Eraikuntza: esplotazioa gehiengoarentzat eta etekinak gutxi batzuentzat12
8. Lan-osasuna: lanera joateak bizitza arriskua jartzea dakarrenean.13

2. INTERBENTZIO ILDOAK14

1. Gure antolaketa-lana sendotzea:14
2. Negoziazio kolektiboaren bidez gure jendeari segurtasuna ematea.....16
3. Datozen urteetarako gure konpromisoak zehazten.17
4. Lanpostuak eta lan-baldintzak defendatzeko borrokari eutsiko diogu.20
5. Prestakuntza21
6. Lan-osasuna, enpresetako jardun sindikalaren ardatz21
7. Erresistentzia-kutxa, borrokarako gure tresna solidarioa.....21
8. Nazioarteko dimentsioa.....22

PONENTZIA

II. KONGRESUA

2017·12·19

DONOSTIA

1

EGINDAKOAREN BALORAZIOA ETA EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

1. Mutazio sakonak eta joera kezkarriak enpleguan

1. Botere sindikala sendotzea eta industriako eta eraikuntzako langileen interesak sustatzea eta defendatzea, horixe da Industria eta Eraikuntza Federazioaren (IEF) funtsa, izateko arrazoia eta helburua. Hori dela eta, ponentzia honen bidez, gure asmoa da sindikatu gisa zer erronka nagusiri egin behar diogun aurre identifikatzea, eta datozen urteetarako jardunbideak finkatzea.

2. Industria eta eraikuntzaren sektoreak mutazio indartsuen eraginpean daude. Kapitalismoaren garapenaren beraren, inpaktu teknologikoaren eta ohitura sozial eta kulturalen muturreko aldaketen ondorio dira mutazio sakon horiek. Era berean, krisiaren aurretik jada zabaltzen ari ziren prekarizazio-fenomenoez gain, azken urteotan industriaren hirugarren sektorerako joera ere gero eta nabarmenagoa da. Eta gero eta indar handiagoz sumatzen dira azkeneko lan-erreformen eta negoziazio kolektiboaren erreformaren ondorioak. Ezin ahaztu 2007an hasitako krisiaren kudeaketa neoliberalak izan duen eta oraino duen eragina. Hori guztia kontuan hartuta, errotik aldatzen ari da testuingurua, eta gure erakundeak egokiera zail horretan eutsi behar dio bere eraginkortasunari, langile-klasearen alde lan egiteko,

3. Hego Euskal Herrian, industriak gero eta garrantzi txikiagoa du sortutako aberastasunean, gure inguruko herrialdeetan baino nabarmenagoa balio-galtze hori 2008. urteaz geroztik, nahiz eta BPGdren %20tik gorako balioetan eusten dion. Herrialde industrialak izaten jarraitzen dugu, Espainia, Frantzia edo Europako batez bestekoarekin alderatuz gero, baina gero eta gutxiago. Euskal industrian enplegatutako pertsonen ehunekoak ere behera egin du, baina zaila da zehaztea industriako enpleguaren galera gordina zenbatekoa izan den, eta zer zati igaro den hirugarren sektorerako, zerbitzu-enpresak sartzearen ondorioz eta langileak haien esku jartzearen ondorioz.

4. Industrian enplegatutako bost pertsonatik bakarra da emakumea (gainerako sektoreetan ia %50a). Emakumeen ehuneko hori are txikiagoa da industriako azpisektore gehienetan: hirutan (farmaziako produktuak, ehungintza eta elikagaien industria) emakumeen parte-hartzea handiagoa da, baina metalgintzan eta erauzketa-industrietan, aldiz, emakumeen presentzia %15etik beherakoa da. Gure herrialdean alde izugarria dago batzuen eta besteen soldaten artean, eta horrek %30erainoko diskriminazioa eragiten du. Hain zuzen, horren ondorio da, neurri handi batean, industria-sektoreetan hain emakume gutxi egotea.

5. Nabarmena da emakumeen ordezkartza eskasa gure federazioko sektoreetan, lotsamangarria eraikuntzan eta beste zenbait sektoreetan, eta emakumeen ehunekoa handixeagoa den beste batzuetan ere, hala nola nekazaritzako elikagaien industrian, diskriminazioa agerikoa da. Enpresa horietan ardura handieneko postuak eta batez ere ondoen ordainduta daudenak barruti itxia dira emakumeentzat.

6. Enpresari batzuek, inolako lotsarik gabe, onartzen dute ez dutela emakumerik kontratatu nahi edo goragoko postuetarako sustatu nahi, ama izan daitezkeelako. Gaude hez-

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

kuntza-sistemak berak eta indarrean den pentsamendu hetero-patriarkalak berebiziko eragina dutela ordaindu gabeko zaintza-lanak emakumeei dagozkiela uste izateko. Gure federazioan, emakume gehien lanean ari den sektoreetan (bide batez esanda, horietan daude baldintzarik okerrenak), enpresarioek ia normaltzat hartzen dute horrelako lanpostuak emakumeei eskaintzea, lan hori ia-ia “senarraren soldataren” osagarritzat harturik.

7. Gazteenak ere prekaritatea jasaten ari dira. Gazteek zailtasun handiak dituzte lan-merkatuan sartzeko, eta kapitalak baliatu egiten du ezintasun hori, gazte jendea prestatzeko lan kontratuak sustatu beharrean, haiek ustiatzeko ereduak bultzatzen baititu. Praktikatako kontratuak, prestakuntza eta ikaskuntzarako kontratuak eta bekek gaizki ordaindutako lana ezkututzen dute, eta kasu askotan langileak jaso beharko lukeen prestakuntzarekin inolako zerikusirik ez dute kontratu-eredu horiek. Enpresek baliatu egiten dute kualifikazio handiko pertsonen lana, zenbait kasutan hutsaren truke. Kasu batzuetan, gainera, etengabe txandakatzen dituzte horrelako profila eta kontratuak dituzten pertsonak, errotazioa egiturazko bihurtuz.

8. Beharraren beharrez emigratzea beste aukerarik izan ez duten pertsonak ere patronalaren diru-gosearen biktima dira. Emigratzaile horiek batez ere sektore prekarioetan ari dira lanean, eta sektore horietan nabarmena da patronala haien egoera ahulaz baliatzen dela.

9. Kapitala, aberastasuna pilatzen jarraitzeko beharrak akuilaturik, gai da bizitzaren esparru eta egokiera guztiak baliatzeko. Baita espetxean dauden pertsonen egoera ere. Presoei prestakuntza eta lana ematen zaiela aitzakiatzat hartuta, kapitalak beste behin bere mesedetan bihurtzen du arrazoibide hori, eta pertsona horiek erabateko egoera zaurgarrian daudela aprobetxatzen du, kostu oso txikian ekoitzi dezaten. Egoera hori ezkutaturik geratzen da gainera, gizarteak oro har ez baitaki zer gertatzen den, eta ondasunak ekoizten dituen pertsonak ez du inolako aukerarik bere baldintzak hobetzeko.

10. Enplegu-zentro berezietan nabarmen hazi dira plantillak azken urteotan. Funtsezkoa iruditzen zaigu zentro horiek beren eginkizun soziala betetzea, baina, aldi berean, langileek lan-baldintza duinak izan behar dituzte eta sindikalki antolatzeko modua ere izan behar dute. Alde horretatik, adierazi behar dugu gure delegatuek arazoak izan dituztela gune horietan beren eginkizunak betetzen dituzten langileei laguntzeko.

11. Azken lan-erreformen xedea, besteak beste, enpresarien erantzukizuna ezabatzea izan da. Azken 10 urteotan enpresa asko eta asko itxi dira. Kasu askotan, enpresak deskapitalizatuak izan dira, edo modu iruzurtian kudeatuak izan dira. Eta guk dakigula jardun horiek ez dute inolako ondorio penalik izan inon. Kongresuaren egokiera honetan, konkurtsoko administratzaileen jarduna salatu nahi dugu. Zoritxarrez esperientzia handia dugu konkurtsu-prozesuetan, eta ezinbestean oso kritiko izan behar dugu haien lanarekin. Izan ere, salbuespen bakanen batean izan ezik, ez dute besterik egiten: haien diru-sarrerak ziurtatu, enpresarien ardura oro desagerrarazi eta langileei txantajea egin, planteamendu atzerakoiak onar ditzaten.

12. 2008. urtetik, eraikuntzaren sektoreak inoizko krisirik larriena jasan du, eta, horren ondorioz, milaka eta milaka enplegu galdu dira, eta enpresa asko eta asko itxi dira. Eraikuntza pribatua (etxebizitzena batez ere) erori da batez ere urteotan, baina eraikuntza eta obra publikoa ere, 2010ean goia jo ondoren, jaitsi egin da gerozko urteotan. Aldiz, handitu egin da eraikuntzak zaharberritzeko eta birgaitzeko jarduera. Azpikontratazioaren fenomenoak indarra hartu du, eta gaur egun, enpresa handiek langileen egitura oso txikiak dituzte. Obra handietan ohikoa da enpresa nagusiak enplegatu bakarra izatea ikuskatze-eta prebentzio-lanak egiteko, eta azpikontratazio-kate amaigabe bat obra gauzatzeko. Oro har, sektore honetan eta bereziki obra batzuetan ez dago lan-legedirik. Eta industrian gertatzen den moduan, are nabarmenago esango genuke, emakumeen ehunekoa hutsaren hurrengoa da eraikuntzaren sektore honetan.

2. Botere sindikala ahultzeak itsutzen du patronala

13. Negoziazio kolektiboaren bi erreformak, eta, Industrian bereziki, Rajoyren erreforma, zoritxarreko mugari izan dira lan-harremanetan eta gure federazioaren jardunean. Egia da, beste sektore batzuetan ez bezala, Industrian enpresaren esparruak alternatiba bidegarriak eskaintzen dituela, baina nolanahi dela ere, patronalak blokeatuta ditu sektoreko hitzarmen asko eta asko, eta zaila da egoera horren aurrean bestelako alternatibarik zabaltzea, patronalak gero eta behar gutxiago baitu negoziatzeko.

14. Urteotan, patronalak eta batez ere Adeg, gogotik ari dira lanean eta baliabide asko bideratzen "lan-harremanen eredu berri bat" deitu dutena sustatzeko. Alabaina, eredu horren aitortu gabeko helburua da sindikalismoari enpresetan modu eraginkorrean antolatzen galaraztea. Gero eta lantoki gehiagotan ari dira ezartzen eredu hori, lan-harremanetan langileak banaka hartzeko eta botere sindikal kolektiboaren eraikuntza galarazteko. Eta ahalegin horri, gainera, txalo egiten diote euskal erakunde eta agintari nagusiek, kritika txikienik gabe.

15. Eredu horrek batez ere gardentasunaren amua erabiltzen du propaganda egiteko. Hala ere, gure inguruko enpresek jarrera hertsia agertzen dute eta datuak ezkutatzeko joera dute langileekiko eta haien legezko ordezkariakiko. Adibidez, enpresa askok eta askok, besterik gabe, ez dituzte kontuak erregistratzen, eta nahiago dute dagokien isuna ordaintzea. "Sormenezko kontabilitatea" zabaltzen ari da, helburu bakarrarekin: enpresetan gertatzen ari denaren irudi faltsua ematea, eta horrek sozietateen gaineko zergaren bidez diru gutxiago biltzea eragiten du (etekinen gainekoa da zerga hori).

16. Eredu horren arabera, negoziazio kolektiboa enpresen lehiakortasuna murrizteko faktorea izan daiteke. Ustezko proiektu partekatuak, interes komunak eta abar aipatzen dituzte, baina testuinguru horretan patronalaren helburua da langileak alienatzea, sortutako aberastasuna are modu desorekatuagoan banatzeko, langileen eta guk defendatzen ditugun interesen kaltetan, noski.

17. Patronalak iritzi publikoari bidaltzen dizkion mezuak eta sindikatu honek egunerokoko esperientziatik ateratzen dituen ondorioak ez datoz bat, inondik inora. Jabetzen ari gara enpresek gero eta gehiago parte hartzen dutela hauteskunde sindikaletan (prozesu horretan langileek askatasunez hautatu beharko lituzkete beren ordezkariak), enpresarien aldeko hautagaitzak edo talde independenteak bultzatuz edo zuzenean sindikatuen eskura jarritz. Ohikoa da hautagaiak eta hautesleak behartzea eta hertsatzea. Herri honetako enpresa handi askok behin-behineko langileen sarrera-kuotak negoziatzen dituzte sindikatuarekin, eta ondoren, sindikatu horiek desmobilizazioa sustatzen dute, zuzendaritzen eskutik jasotako prebenden morroi. Egiturazko prekarietatea modu estrategikoan erabiltzen dute, egoera hori jasaten dutenak sigla sindikal jakin batzuen sokara lotzeko, baina sindikatu horiek ez dituzte ez ordezkatzeko eta ez defendatzeko.

18. Azken urteotan egoera zailak bizi izan dituzten enpresa dezentek eredu horiek ezartzearen alde egin dute. Zenbaitetan, mundu kooperatiboaren antza dute eredu horiek, baina finean, langileen antolatze gaitasuna zailtzea beste helbururik ez dute. Jokabide hori izugarri larria da, eta aspaldi batean langileek beren ordezkariak hautatu ezin zituzten garaiak datozkigu gogora. Gardentasuna, berdintasuna eta adiskidetasuna aipatzen dituzte hitzetik hortzera, baina gehienetan lan-baldintzak nabarmen hondatzen dituzte haien neurriek, eta langileak beren egoera gero eta prekarioagoaren subjektu aktibo izatera behartzen dituzte. Gainera, sarritan, enpresa-eredu horren aurkako jarrera kritikoa dutenak mailaz beheratu eta zokoratu egiten dituzte. Gauzak horrela, prekarietatea besterik ez dakarren eredu horren porrot askoren lekuko ere izan gara azken urteotan.

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

19. Hala ere, ezin dugu arinkeriaz hartu euskal industrian enpresa askoren zuzendaritzan indar hartzen ari den joera hori. Baliabide ugari ari dira bideratzen horretara, ederki dakite zer helburu dituzten eta ondo baino hobeto identifikatu dituzte langileen ahuluneak, horiek baliatuz, eredua arrakasta eta azkartasun izugarritz ezartzeko. Hori guztia aintzat hartuta, berebiziko erronka du gure federazioak: ezinbestean zorrotzasun handiz egin behar dugu lan, diseinu patronal honetan jokoan diren elementu ideologikoetan sakondu behar dugu, eta egunez egun beren lanpostuetan zafaldi horiek jasaten dituzten delegatuak eta afiliatuak ahaldundu behar ditugu.

3. Buru-buruan egon gara enpleguaren eta enpresen etorkizunaren aldeko borrokan

20. 2008an lehertutako krisitik hona igarotako urteotan guztiotan, ELAk funtsezko eginkizuna izan du enpleguaren defentsan eta murrizketa-politiken aurkako borrokan.

21. Patronalak erabateko itxieren edo itxiera partzialen alde egin du urteotan, eta guk estrategia horretan bidelagun ez izatea erabaki genuen. Federazioak Euskal Herrian industria eta enplegu duinak izatearen alde egin zuen apustu, eta bide horretan negoziazio kolektiboko eta industria-politikako kabinetearen eta zerbitzu juridikoen laguntza izan du, baita konfederazioaren babesa ere. Zoritxarrez, kasu askotan bakarrik sentitu izan gara lan-munduen defentsan. Estatuko sindikalismoak itxieren aurrean amen egiten jarraitu du, historikoki egin zan duen moduan. Euskal Herriko eskualde batzuetan desindustrializazio-prozesu bortitza jasan dute, sindikalismo amore-emaile horrek onartutako akordioen ondorioz.

22. Oro har, esan dezakegu erakundeek ez dutela neurririk eman. Egia da, propaganda handia egin dute industria dela eta ez dela, baina kalitatezko enpleguak gordetzeko apustua egin dugunoi ez digute inolako babesik adierazi. Aitzitik: kasu askotan presioak jasan ditugu langileen kaleratzea zekarten akordioak onartzeko.

23. Bakarrik egindako lan horrek, urteen joanean tinko eta koherentziaz eutsitako lan horrek, ikusarazi die, baita enpresa multinazionaleri ere, Espainiako legediak horretarako bidea erraztu arren, Euskal Herrian zailagoa dela plantak ixtea eta kaleratze masiboak egitea. Hori dela eta, enpresa batzuek atzera egin dute munta horretako erabakietan.

24. Nafarroan, UPN gobernuan izan zen urteetan, administrazioak erabateko mespretxua agertu zion ELAri; aldiz, enpresariaren interesen bezero leial eta esaneko izan zen alderdi hori. Enpresak ixteko mehatxuen aurrean, gure federazioak hainbat hartu-eman lortu zituen jarduera horiei jarraipena emateko interesa zuten industria-proiektuekin, baina orduan ere Nafarroako Gobernuak bazterrera utzi gintuen. Koalizio gobernu berriak, gutxienez, hartu-emana bideratu du eta errespetua agertu du ELArekiko, eta onartu du bade-la nor eta ordezkariak esanguratsua duela Foru Erkidegoko Industrian eta Eraikuntzan. Nolanahi ere, gaur-gaurkoz, ezin dugu esan emaitza positiborik iritsi denik industriarako eta enplegurako.

25. EAEn, Industria Sailak, Arantxa Tapia buru dela, neoliberalismoaren aldaera muturrekoena sustatzen du. Wisconsin estatuko gobernadorea -AEBetan eskuin atzerakoiaren erreferente antisindikal egiazkoa- gonbidatu du gure herria bisitatzera; hortik atera kontuak enpresariaren aldeko zer-nolako joera duen sailburuak. Sindikatuak hainbat eskabide egin badizkio ere, Tapiak ez gaitu hartu nahi izan, eta aldiz, jarrera erabat abegitsua agertu du erakunde patronalekiko, eguna joan eta eguna etorri hedabideek erakusten duten moduan.

26. Lan munduarekiko haren ikuspegia enpresetan hasi eta bukatzen da, enpresatzat harturik zuzendaritzak eta haien ugazabak. Langileek mendeko eginkizuna dute, enpresei produktibitatea eta etekina ematea. Sindikatuei (langileen antolamendu kolektibo diren aldetik) ez zaie inolako eginkizunik aitortzen, non eta ez dituzten enpresarien erabakiak onartzen. Negoziazio batzuetan, Industria Sailak esku-hartze aktiboa izan du, nahiz eta negoziazio horiek ez inolako konpromisorik ekarri enpresen zuzendaritzentzat, eta azkenean eskubideen galera etorri da, eta hainbat hamarkada atzera egitea. Horrela gertatu da, adibidez, Sestaoko Arcelor Mittal enpresaren kasuan.

27. Aipagarria da, halaber, kongresu-arteko epean lan-ikuskaritzak agertu duen lerratzea. ELAren iritziz, sakoneko erabaki politiko bat dago erakunde horrek bere egitekoa ez betetzeko. Industrian nahiz eraikuntzan geratzen ari da agerian lerratze hori, gure federazioak ez ezik ELAren gainerakoek egiaztatu duten moduan. Baliabide mugatuak izan arren (erabaki baten ondorio da hori ere), eskueran dituenekin egiten duena baino askoz gehiago egin zezakeen ikuskaritzak, lan-iruzurra erabat zabaldua dagoen honetan. Ezin konta ahala salaketa bideratzen ditugu, baina, oro har, erantzuna berandu iristen da eta ez da batere eraginkorra, salatzen ditugun gertakarien munta kontuan hartuta.

28. Alde horretatik, gure zerbitzu juridiko konfederaiek eginiko lana azpimarratu nahi dugu, are gehiago gaur egungo egoera zail honetan. Bata bestearen atzetik eginiko erreformen helburua langileen erantzun juridikorako ahalmena itotzea izan da. Alabaina, gure zerbitzu juridikoek enpresarien boterea murriztu eta mugatu duten ebazpenak eta epaiak lortu dituzte, eta funtsezko erabaki horien eskutik etorri dira gero azken urteotako garaipen asko. Ez alferrik gure zerbitzu juridikoak erreferentzia eta ispilu dira, baita gure herrialdetik kanpora ere.

4. Negoziazio kolektiboaren bidez lan-baldintza duinak sortuz

29. ELAk zorrotz eta gogor kritikatu du azken urteotako lan-merkatuaren egoera. Prekarietatea nabarmen hazi da, eta aberastasunaren banaketa ere gero eta desorekatuagoa da. Bata bestearen atzetik egindako lan-erreformek autobide zabal bat ireki dute enpresariak langileen lan-baldintzak are gehiago murriztu ditzaten.

30. ELAk, ordea, ondo daki salaketaz gain ezinbestekoa dela alternatiba bat sortzea, eta bere gain hartzen du horretarako konpromisoa. Segidako lan-erreforma horiek salatu ditugu, baina batez ere milaka eta milaka langile blindatzea lortu dugu, erreforma neoliberal horien eragin makurretik.

31. Patronalak urteak zeramatzan 2012koaren neurriko lan-erreforma bat eskatzen, eta erreforma horrek mugarri bat ezarri zuen lan-merkatuaren bilakaeran. Alabaina, ez du beti nahi duena egin, eta kasu batzuetan harri eta zur ikusi du bazkide batzuek erreforma hori aplikatzea eragozten zuten hitzarmenak nola sinatzen zituzten. Lorpen ikaragarria da hori, eta ELAko militanteek eginiko antolakuntza-lana harro egiteko modukoa da.

32. Enpresetako zuzendaritzek, kasu askotan, irmo eutsi nahi izan diete beren pribilegioei, eta, alde horretatik, greben garrantzia ere oso nabarmena izan da azken urteotan.

33. Hilabeteak edo, areago, urtebetetik gora iraun dezakeen greba edo gatazka bati eustea izugarritzko ahalegina da antolakuntza aldetik, sindikatu ororen indarra neurtzeko egiazko probarrria. ELAk erakutsi du gaitasun sobera duela patronalarekiko pultsu horri eusteko, eta kongresu-arteko aldi honetan ere frogatu du ahalmen hori.

34. MTBko, Gipuzkoako Errepideetako Mantentze-lanetako edo Kaiku km.0 enpresako langileek erakutsi dute, adibidez, irmotasunaren, borrokaren eta antolaketaren bidez lan-

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

gile klaseak lor ditzakeela buruan dituen helburuak. Euskal Herrian industrian eta erai-kuntzan gehien iraun duten grebak izan dira, ELAko jendeak bultzatu eta sostengatutako grebak.

5. Industria-politika esaten diotena ez da propaganda besterik

35. Industria-politika eraginkorra izatea, emaitzak emango dituen, horra hor herrialde baten nortasuna finkatzen duen euskarrietako bat. Jabetzen gara industria-politika eragin-korra finkatzea, epe luzera arrakastatsua eta aberastasuna eta enplegu duinak sortuko dituen, ez dela erronka makala gobernuentzat. Zoritxarrez, azken urteotako esperientzia-ren argitan esan dezakegu Hego Euskal Herrian ez dagoela industria-politikarik eta horren ordez propaganda besterik ez dela egiten.

36. Euskal industrian erabakigune asko galdu dira. Hor dira, besteak beste, Euskaltel, Gamesa, Guascor, Bellota, ITP, Naturgas... Bateren batek esan dezake kontu logikoa dela mundu globalizatu honetan. Ulergaitza zera da, erabakiguneen erosketa eta galera horiek guztiak ontzat eta onuragarritzat jo izan dituztela agintari politikoek. Eragiketa horiek "aukeratzen" hartu izan dituzte, baina ez dute aipatzen etorkizunean horrek zer eragin ekar ditzakeen. Gainera, Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan esku hartu du kasu batzuetan, industria-proiektuetarako egiten zuen ekarpena kenduz edo desinbertsioa bultzatuz, bai zuzenean bai kutxen bidez.

37. Uste dugu ez dela bateragarria industria-politika eraginkor baten alde apustu egitea eta euskal kutxa publikoen eginkizun soziala bertan behera uztea. Lau lurraldeetako erakun-deek babestu eta/edo bultzatu egin dute, esaterako, Caixak CAN xurgatzea edota Kutxabanken bankarizazioa, ahalik eta denbora laburrenean errentagarritasun handiena lortzeko apustu garbia eginez. Hala, kapitala galdu da, aberastasun-iturri beharko zuketen proiektuei heltzeko kapitala galdu da. Neoliberalismoa, itxuraz, ez da bateragarria ekimen publiko eraginkorarekin.

38. Merkataritza libreko hitzarmenen alde egiten den neurrian, multinazionalen alde egiten da, eta horiek ez dute gizarte- eta ingurumen-estandar bakar bat ere errespetatu nahi. Begien bistakoa da hitzarmen eta akordio horien eskutik lan-prekarietatea besterik ez datorrela kaltetutako herrialdeetara; horrela gertatu da, adibidez, Nafta akordioarekin. Areago: akordio horietan jokoan dagoena, hitzarmen horien xedea, ez da herri xehearen ongizatea edo merkataritza bera; aitzitik, helburua da kapitala metatzeko oztopoak paretik kentzea. Sinestezina badirudi ere, Tapia sailburuak berak TTIP hitzarmena babestu zuen legebiltzarrean, eta positibotzat jo zuen, baita euskal ETEentzat ere.

39. Atzerriko kapitalarekiko mendekotasunak ere kezkatu egin beharko lituzke industria-politikako arduradunak. Nafarroa aipatzen da beti egoera horren adibidetzat, besteak beste, Volkswagen erraldoiaren mende dagoelako.

40. Ezer gutxi esan dezakegu estatuko industria-politikari buruz, apenas baitugu politika horren berririk; zerbait esatekotan, berretsi baino ezin dugu egin kongresu-arteko epe honetan, Soria ministroa, Estatuko tradizio oligarkikoaren jarraitzaile leiala, bide penaletik jazarri beharreko jardun ez-moralen protagonista izan dela. Gainerakoan, PPren energia-politikak erabateko morrontza erakusten du Iberdrolarekiko eta Ibexeko beste handiekiko, eta eraso egiten die energia berriztagarriei (hor da "eguzkiari ezarritako zerga" deritzona), eta horrek guztiak egoera negargarria sortzen du.

41. Euskal Herrira itzulita, beldur gara gure erakundeek bultzatutako industria-politikak bertan goxo egindako enpresak saritzen dituela, eta, sarri askotan, beharrik ez duten kon-painiei ematen dizkietela diru-laguntzak. Hainbat eta hainbat ETEK finantzaketa-arazo

larriak izan dituzte, eta, aldiz, neurri handiko enpresek, funtsak biltzeko ahalmen nahikoa duten konpainiek, justifikaezinak iruditzen zaizkigun laguntzak jaso dituzte.

42. Nolanahi ere, erakundeek industria babesteko politika aktiboa egin behar dutela uste dugu. Eta politika horrek, besteak beste, ELA eta beste sindikatu batzuekiko kideasuna bilatu beharko luke, elkarrekin tokiko garapena bultzatzeko. Horretarako, erakundeek tresna eta baliabide publikoak jarri beharko lituzkete ekimen publikoaren eskura. Ingurumenarekiko ere arduratsu jokatu behar du industriak. Ezinbestekoa da, besteak beste, klima-aldaketaaren erronka eta energia fosilak behin betiko erabiltzeari uzteko helburua jomugan jartzea, eta gure industria jomuga horretarantz bideratzea.

6. 4.0 industria... enplegurik gabeko industria ote jomuga?

43. Azken urteotan asko erabiltzen da 4.0 Industriaren kontzeptua; ekoizpenerako bitartekoak antolatzeko beste modu bat adierazten du kontzeptu horrek. Industria horren helburua da “fabrika adimendun” ahalik eta gehien martxan jartzea; ekoizpen aldetik malgutasun handiagoz jokatzeko eta baliabideak eraginkortasun handiagoz esleitzeko gai izango diren enpresa adimendunak, hain zuzen. Hauek dira estrategia horren ardatzak: ekoizpen-prozesu askoren digitalizazioa, autodiagnostikoa eta urrutiko kontrola, azken kontsumitzaileen produktuak pertsonalizatzea, eta lehengaiak eta energiak gutxitzea.

44. 4.0 Industriaren harira, batzu-batzuek egoera apokaliptikoak irudikatu dituzte, industria horrek ekar dezakeen enplegu-suntsiketa dela eta ez dela, batez ere mekanizazioan eta errepikapenean oinarritzen diren manufaktura-prozesuetan. Begien bistakoa da sistema horiek ezartzeko ezinbestekoa izango dela eskulana prestatzea eta egokitzea, eta horrek behar berriak ekarriko dituela. Era berean, begien bistakoa da digitalizazioaren eta zerbitzu-enpresak ugaritzearen ondorioz enplegua eraldatu egingo dela, eta kapitalak egokiera hori balia dezakeela lan-baldintza are prekarioagoak ezartzeko. Ordea, sindikatu gisa kezkatzen gaituena da agintariak modernizatzeko eta lehiakorragoak izateko beharrari jartzen ari zaizkiola arreta, eta ez horrenbeste abian den industria-iraultza hau guztion mesederako izateko bultzatu behar diren politikei. ELAk, aldiz, industriak egin beharko lukeen ekarpen sozialari jarri behar dio arreta; izan ere, beldur gara 4.0 Industria ez ote den izango beste aitzakia bat murrizketa eta doikuntza gehiagori bide emateko. Dagoeneko badi-ra inbertsioak egiteko aitzakian soldatak jaistea proposatu duten zenbait planteamendu, eta horien eskutik enplegua suntsituko da. Patronalarentzat 4.0 Industria ez da bateragarria lan-eskubideekin, eta hortik XIX. mendeko lan-baldintzak etorriko dira.

45. Uste dugu enpresek lortutako etekinak enpresetan inbertitu behar direla. Seguru asko, egoera batzuetan, ekoizpen-prozesu berriek enplegu gutxiago behar izatea eragingo dute, saihestezina izango da hori. Hori dela eta, uste dugu ezinbestekoa dela etorkizuneko industria-beharrizan berriak non sortuko diren aztertzea eta sektore horietara bideratzea gaur egungo nahiz etorkizuneko langileen prestakuntza. Alde horretatik, trantsizio klimati-koa epemuga horri begira Euskal Herrian 100.000 enplegu sortzeko azterlana bultzatu du gure konfederazioak, eta uste dugu erakundeek zorrotz aztertu beharko luketela ekarpen hori.

7. Eraikuntza: esplotazioa gehiengoarentzat eta etekinak gutxi batzuentzat

46. Lan eskerga egiten ari gara eraikuntzan, sarritan esker txarreko lana, sektorearen bera-
ren berezko zailtasunagatik ez ezik enpresarien diru-goseagatik eta administrazioaren
“egiten uzteko” politikagatik batez ere. Lizitazioak egiteko modua, lan-esplotazioa, eskula-
naren erabilera esklabista... gaixorik dagoen sektore baten sintoma dira.

47. IEFen barnean, ezaugarri bereziak dituen sektorea da Eraikuntza: lan-baldintzak higa-
tzen eta okertzen ari dira, araudiak eta hitzarmen kolektiboak ez dira aplikatzen, eta, horren
guztia-oren ondorioz, lan-harremanen arloan esperimentaziorako esparru ezin hobe-
a bihurtu da. Hori dela eta, hitzarmen kolektiboak aplikatzeko bermeen alde borrokatzea funtsez-
koa da negoziazio kolektiboan, eta eraikuntzan, berriz, hil ala bizikoa. Hori da, dudarik
gabe, gure erronkarik handiena.

48. Sektoreak enplegu asko xurgatu zuen hazkundera izan zen urteetan (1993-2007), batez
ere higiezin-
en burbuilaren eta azpiegitura handien (eta batzuetan alferrekoen) ondorioz,
kreditu errazaren bidez hormigoiaren kultura sendotu baitzen urte haietan. Gehiegikeria
horien aztarnak badira Hego Euskal Herrian ere. Oparoaldi hartan jada egokitu zitzaigun
hitzarmenak ez aplikatzearen aurka lan egitea. Gaur egun, enplegua erdira erori da sekto-
rean. Enplegu falta dela eta lan-erreformen ezarpena dela, baldintzak ezin aproposagoak
izan dira esplotazioa ohiko eta arrunt bihurtzeko.

49. Esplotazio-egoera hori ez da soilik Hego Euskal Herrikoa. Mundu mailako fenomeno-
a da eta, horren ondorioz, ez gutxitan, pertsonen egiazko trafikoa sortzen da. Ez da izango
beste sektorerik langileek hainbeste lekualdatze egiten dutenik: Zergatik joaten dira eus-
kal langileak Frantziara eraikuntzan lan egitera? Aldi berean, zergatik datoz Galiziako lan-
gileak Euskal Herriko obretara? Eta zergatik portugaldarrak Galiziako obretara, brasilda-
rrak Portugalera eta horrela mundu guztia? Neoliberalismoak beharra baliatzen du des-
arautzeko. Egia da, gaur egun, bertako pertsona gero eta gehiagok, behar-
ren beharrez, baldintza eta egokiera horietan lan egin beste aukerarik ez dutela.

50. Azken urteotan esplotazio-kasu lazgarriak hauteman ditugu. Orduko 4 euroko solda-
tak, “patera” pisuak eta 12 orduko lanaldiak, besteak beste. Horiek hautematea ez da lan
erraza. Langileek, beldurtuta, ez dute sarritan sindikatuaren bisita hartu nahi, enpresariak
har ditzakeen errepresalien beldur. Ondo planifikatutako lan zorrotzaren bidez -urrats, bis-
ta, salaketa, agerraldi publiko eta bilera bakoitza neurtuz- baino ez gara gai izango egoe-
ra hau iraultzeko.

51. Aparte jorratu beharrekoa da obra publikoa. Esparru horretan egoera ez da hobe-
a, eta erantzukizunak larriagoak dira. Deskribatutako egoerak eta antzekoak diru publiko-
a tarte-
ko dela sortzea eta erakunde-
en ustezko gainbegiradapean eta ardurapean, eskandalaga-
ria da. Lizitazio-prezioaren %50erainoko beherapenarekin esleitzen dira obra batzuk. Hori
gertatzen denean, esplotazioa ziurra da.

52. Duela urte batzuk, ELAk baino ez zuen egiten sektorearen gaineko irakurketa hori.
Gaur egun, inork ez du ukatzen. Patronalak berak ere, zinismo dosi handiarekin, onartu
egiten du agiri ofizialetan. Urratsez urrats goaz. Obra bakoitza ikasbide bat da guretzat,
hurrengoari heltzeko. Gaur egun esateko moduan gaude, antolatze-
ko gai garen enpre-
setan eta lantokietan, horietan baino ez direla aplikatzen hitzarmen kolektiboak.

8. Lan-osasuna: lanera joateak bizitza arriskua jartzea dakarrenean.

53. Kapitalismoak hil egiten du. Etekinak lortzea eta emaitzen kontua gizentzea, hori da helburu bakarra, bost axola eskubideak galtzea eta lan-merkatua gero eta prekarioagoa izatea. Lazgarriena da gose hori hainbat eta hainbat lankideren heriotza eragiten ari dela urtero. Hego Euskal Herriko hildakoen kopuruak aski adierazgarriak dira esaten ari garena berresteko:

Lan istripuan hildakoak

2014.....	38
2015.....	52
2016.....	53
2017 (uztailaren 12ra arte).....	37

54. Kopuru onartezinak dira bere burua demokratikotzat eta pertsonen eskubideen babesletzat duen gizarte batean. Ziur gaude hildakoak langileak beharrian eros ahalmen handiko pertsonak, enpresariak edo buruzagi politikoak balira, botere publikoen jarduna guztiz bestelakoa litzatekeela.

55. Gaitzesgarria eta sumingarria da ohartzea herrialde honetako eliteentzat normala, zerbait naturala dela langileak lanpostuan hiltzea, eta hala onartu behar dela. Lerro hauen bidez berretsi nahi dugu ELAk bizitza, zaintza eta herritar guztien onura lehenesten duela kapitalaren metaketaren gainetik, eta horren aldeko erabateko konpromisoari eutsiko diola.

2

INTERBENTZIO ILDOAK

1. Gure antolaketa-lana sendotzea:

56. Sindikatu bat gara, eta horrek esan nahi du gu geu garela, langileak, behar bezala antolatuta, tresna nagusia gure jendearen lan-baldintzak hobetzeko.

Eskualdeetako lantaldeak

57. Ontzat ematen ditugu 2013ko kongresutik egin diren aldaketak. Federazioaren zuzendaritzak leku nabarmenagoa du eskualdeetan. Horren helburua zen, aniztasunetik abiatuta, lan egiteko moduak bateratzea, lan-testuinguru gogor honetan eraginkorragoak izateko.

58. Eskualdeetako lantaldeak sortzerakoan, nazio-mailan presentzia duten Idazkaritzako eta ETEetako arduradunak bildu genituen horietara, eta eskualdeko ikuspegia eman genien lantalde horiei. Horren xedea zen gure atal sindikalei hazten laguntzeko eraginkorragoak izatea, enpresa txikietan hazten eta bidea egiten jarraitzea, eskualdeetako batzorde federalak egituratzea eta dinamizatzea eta, azken batean, enpresetan gure afiliazioa hazten jarraitzea. Eskualdeetako lantaldeak talde-lan hori egiteko gune bihurtu dira, federazioa bere hedadura osoan eskualdean zabaltzeko espazioa.

59. Uste dugu, gainera, gune horrek ahalmen handiagoa izan dezakeela. Federazioa eskualdeetara hurbiltzeak lagundu behar du, besteak beste, arduradunek eztabaida federal nazionaletan parte har dezaten.

60. Bi hiriburutan federazioak koordinatzen dituzten arduradunak ere bildu ditugu gure zuzendaritza-lantaldeetara. Ikasi egin nahi dugu, eta ekarpenak egin.

Atal sindikala

61. Atal sindikala da ELAren sindikalismoaren oinarria industrian. Haiekin gure lana hobetzeko apustua egiten ari gara. Enpresetan gure lana modu sistematikoagoan eta zorroztasun handiagoz egitea izango da gure ahalegina. Horretarako, beharrezkoa da bilerak alde zuzenetik prestatzea, eta bilera horietan enpresaren arazoak aztertzeaz gain, delegatuek sindikatuan eta, oro har, lan-munduan gertatzen dena partekatu behar dute. Gure militanteek denbora mugatua dute enpresetan, eta aprobetxatu egin behar dugu denbora hori lantoki bakoitzean botere sindikala sortzerakoan eraginkorragoak izateko. Hori guztia, gainera, testuinguru zailean, patronalak gero eta babes juridiko handiagoa baitu bere erabakiak gainera ezartzeko.

62. Azken urteotan denbora asko eskaini diogu lan horri. Atal sindikal askotan eztabaidatu, adostu eta idatzi ditugu diagnostikoak, jarraitu beharreko estrategia, ezarritako helburuak eta horiek gauzatzeko bideratu beharreko ekintzak. Gero eta ohikoagoa da atal sindikalaren eta idazkaritzako kide baten arteko bilerak egitea, eguneko gai-zerrendarekin, zereginak hobeto banatu ahal izatea errazten duten aktekin eta bilera batetik bestera betetzen diren konpromiso zehatzekin.

63. Dudarik gabe, lan hori ez dago amaituta eta hobetu daiteke. Kongresu-arteko hurrengo eperako helburu bat, lortzeko modukoa, honako hau da: gutxieneko kide kopuru bat eta inplikazio nahikoa dituen atal sindikal bakoitzak lan-plan bat izatea, bide-orri moduko bat, epe luzera eta eguneroko jardunean lan egiteko. Gero eta gaitasun handiagoa izan behar dugu enpresa aztertzeko, nola lan egin behar dugun erabakitzeke, atal sindikaleko kideen artean zereginak banatzeko eta, batez ere, eraginkorrak izan behar dugu langileak ahalduntzeko. Atal sindikal bakoitzak zehaztuta eduki behar ditu enpresaren diagnostikoa, lortu beharreko helburuak eta egin beharreko ekintza zehatzak. Erreakzio-lanari ez ezik, arreta handiagoa eskaini behar diegu gure helburu estrategikoei.

64. Lan hori egiteko, elementu batzuk ezinbestekoak dira. Langileekiko komunikazioa eta haien parte-hartzea funtsezko erronka dira ELAren atal sindikal guztientzat, are gehiago testuinguru honetan. Lan-plan bat herrena izango da komunikazio- eta partaidetza-planik gabe. Teknologia berriak baliatzea (betiere jendearekiko hartu-eman zuzena galdu gabe) eta ohiko batzarrez gain (horiei uko egin gabe, alegia) parte hartzeko beste gune batzuk bideratzea, horra hor zenbait jarraibide atal sindikal bakoitzak bere plana egin dezan. Plan horrek jaso beharko luke zein izango den gure estrategia enpresan lan-baldintzak duintzeko eta atal sindikalak sindikatuaren jardunean esku hartzeko. Plana bera ez da helburu bat bere horretan, ez da helburu burokratiko bat, baina ez bagara gai gure atal sindikala-rekin plan bat adosteko, argi dago gure antolaketa-lanak hainbat gabezia dituela.

65. Begirada osoa eskaini nahi diegu enpresei: mugagabeko langileek, behin-behinekoek, azpikontratatuak, bekadunek... osotasun bat eratzen dute. Enpresa bakoitzean prekarietatearen mapa zehatz bat taxutzeko konpromisoa hartu behar dugu, eta mapa horretan bildu behar ditugu lantokian dauden pertsona guztiak, izan plantillakoak izan aldi baterakoak edo azpikontratatuak. Lan horrek aukera emango digu sindikatu osoaren jardun-eremua zabaltzeko, baita beste federazioena ere, lan-baldintzak hobetzeko eginahal horretan.

66. Enpresek pribilegio handiak dituzte lan-baldintzak ezartzeko, eta gure lanaren funtsa da pribilegio horiei aurre egitea. Bata bestearen atzetik etorri diren erreformen ondoren, legeak izugarritzko aukerak ematen dizkie enpresei baldintzak ezartzeko eta langileak kalera-eratzeko. Hori nahikoa ez eta iruzurra oso zabalduta dago lan-munduan. Enpresa azpikontratatuaren iruzurrezko erabilera, autonomo faltsuak, lege-haustez egindako kontratazioak, aldi baterako langileen txandakatzea edo bekadunek jasaten duten esplotazioa... industriaren ere prekarietatea oso zabalduta dagoenaren zantzuak dira. Eraikuntzan, azpikontratazio-kate amaigabeen eraginez, iruzurrak sortzen dira azkenerako, eta horien erantzukizuna ezerezean geratzen da. Prekarietatean ari diren langileak ahalduntzea, ez dago beste biderik prekarietate horrekin errotik amaitzeko.

Eskualdetako Batzorde Federalak

67. Norberaren enpresari begira atal sindikalarekin egin beharreko lanaz gain, ELAko federazio garen aldetik, gure helburua da gure jendeak sindikatuan militatzea: lan arloan, arlo sindikalean, sozialean, politikoa, enpresan, sektorean, eskualdean eta herrialdean, osotasunean hartuta. Eskualdearen arabera, Eskualdeetako Batzorde Federalen egoera oso bestelakoa da batetik bestera, eta guztiak dinamizatzea lortu behar dugu.

68. Alde horretatik, oro har, egoera hobean gaude. Tokian tokiko hainbat militantzia-gune zehaztu ditugu, eta beste horrenbeste eskualdetako batzorde federal sortu ditugu. Gaur egun, 17 ditugu herrialde osoan, eta horietan 250 militante baina gehiagok parte hartzen dute. Bakoitzak bere bereizgarriak ditu: funtzionamendu desberdina, bilerak egiteko maiztasun jakina, eta prestakuntza-gune bereizitak.

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

69. Federazioak eskualde jakin horretan dituen lehentasunen eta militanteen ekarpenen arabera izan beharko lukete prestakuntza-gune horietan jorratzen diren edukiek. Egia da lehentasun horiek, gurea bezalako proiektu konfederal batean, eskualdeko edo nazio mailako lehentasunekin bat etortzen eta txirikordatzeko direla gehienetan. Normala da hori; areago, aukera bat da gure kultura militantea hedatzeko. Era berean, gogoeta ideologiko iraunkorrerako gunea ere izan behar du eskualdeko batzorde federalak.

Prestakuntza

70. Lan konfederalaren bidez federazioko arduradunen nahiz gure delegatuen prestakuntzaren hainbat alderdi hobetzen saiatzen ari gara. Ikastaroak egin ditugu hobeto planifikatzen eta hobeto komunikatzen laguntzeko, eta modu aktiboan egin dugu lan nork bere ezagueren ekarpena egiteko. Prestakuntzaren esparru honetan, ELAren antolamendu-kulturaren balio handietako bat da gure atal sindikalak osatzen dituzten kideen parte-hartzea sustatzea. Prestakuntza sindikalari bultzada eman behar diogu, bai prestakuntza tekniko-juridikoari, bai antolamendu mailakoari eta ideologikoari. Pertsonak ahalduntzeko bidea da prestakuntza, gure proiektuarekin bat egiteko oinarria eta neoliberalismoari hobeto aurre egiteko tresna.

Sektoreetako lantaldeak Eraikuntzan

71. Eraikuntzan, lan-mugigarritasuna dela eta, eskualdez gaindiko lana egin behar izaten dugu. Bizkaian eta Gipuzkoan, lurraldeko egituratzen ditugu lantaldeak. Militanteen lurralde-batzarrak ezinbesteko tresna dira, eta elikatu egin behar ditugu.

72. Eraikuntzan egin beharreko lan horretan, bisita sistematikoak egin behar ditugu obretara eta antolatu egin behar dugu lan-baldintzak duinagoak bihurtzeko. Obra publiko nahiz pribatuetako mapak egitea, zer lantoki landu lehenestea, erakundeak presionatzea, lan-ikuskaritza bere eginbeharrak betetzera behartzea eta komunikazioa eta salaketa modu eraginkorrean lantzea, zeregin horiek guztiak erabat beharrezkoak dira gure helburuak lortzeko. Eta ezinbestekoa da einkizun horiei guztiei irmo eustea.

2. Negoziazio kolektiboaren bidez gure jendeari segurtasuna ematea

73. 2011ko erreformak soldaten balioa gutxitzeko oinarriak jarri zituen, eta negoziazio kolektiboaren estatizazioari eman zion bide. Rajoyren hurrengo erreformak bertan behe- ra utzi zuen hitzarmenen aurrera-eragina, eta enpresa-akordioak lehentasunez aplikatzea ekarri zuen. 2013ko uztailan, hitzarmen askoren aurrera-eragina amaitu zenean, une zailak bizi izan genituen. ELAk eta beste zenbait erakundek lan-harremanen aurkako behin betiko eraso horretatik ondorioak ateratzeko premia adierazi zuten, eta jomugan jarri gintuzten horregatik. Areago, gure konfederazioari leporatu zioten negoziazio-eredua suntsi- tzearen ardura, eta ez patronalari edo Rajoyri. ELAk, ordea, bete-betea asmatu du diag- nostikoan: patronalak ez dio, inolaz ere, uko egiten legeak eskaintzen dion guztiari, eta, ahal duen lekuan, denbora pasatzen uzten du hitzarmenak bertan behera gera daitezen.

74. Era berean, hor dago beste eztabaida ere: enpresa-hitzarmenen edo sektoreko hitzar- menen aldeko hautua egitea beharrezkoa ote zen ala ez. ELAk beti aldarrikatu izan du eta aldarrikatzen du, enpresa-hitzarmenak negozio daitezkeen sektoreetan, hala nola indus- trian, enpresa-hitzarmen horiek direla modurik onena erreformaren eraginei aurre egiteko eta horien aurrean blindatzeko. Hortik aurrera, ELAk inoiz ez die uko egin sektoreko hi-tzar-

meni. Ez alferrik, gure sindikatuak horrelako hainbat sinatu ditu, hori bai, aplikatzeko bermeak jasoz eta erreformaren irismena mugatzen duten klausulak gehituz. Rajoyren erreformaren irakurketa zorrotza eginda jabetu ginen enpresa-hitzarmen blindatuak direla gure jendearen eskubideak babesteko tresna juridiko onena. Beste sindikatu batzuk, ordea, eztabaida sortzen saiatu ziren, ea lan-baldintzak non jaso behar ziren, Itun batean edo enpresa-hitzarmen batean. Patronalak, lehen eta orain, enpresa-hitzarmenen alde egiten du argi eta garbi, hitzartutakoa ez aplikatzea errazagoa egiten zaiolako horien bidez. ELAren iritziz, hitzarmenek itunek baino berme gehiago ematen ote duten edo ez ote duten, eztabaida hori gaindituta dago; izan ere, posizionamendu sindikal batzuk gehiago ahalegintzen dira enpresen zuzendaritzei ez aurre egiten baliozko argudioak ematen baino.

75. BBaina erreformek ondorio suntsitzaileak izan dituzte: izugarrizko boterea eman diote patronalari (ez-egiteak mesede egiten die); aurrekaririk gabeko soldaten balio-gutxitzea eta lan-baldintzen kaskartzea ekarri dute; eta azpikontratazio-estrategiak, lana kanpora ateratzea, zerbitzu-enpresak sartzea eta abar erraztu dituzte.

76. Erreformen aplikazioari mugak jartzeko aritu gara lanean, eta hainbat hitzarmenetan jaso ditugu reforma horiek ez aplikatzeko klausulak. Negoziazio kolektiboan horixe izan da gure ahalegin nagusia: negoziazioa lan-erreformen aurrean blindatzea. Soldatak KPIren erreferentziara lotu ditugu. Ezinbestekoa da, muturreko austeritate egoera honetan, soldata-tresna anbiziotsuen erreferentziak zehaztea. Geure buruari kritika egitekotan, horixe kritikatu beharko genioke, azken urteotan ez dugula soldatetan guk nahiko genukeen aurre-erapausorik lortu. Ahalegin horretan aringarri bakarra da KPI oso apala izan dela zenbait urtetan.

3. Datozen urteetarako gure konpromisoak zehazten.

77. ELA Industria eta eraikuntza federazioak bere egiten du prekarietatearen aurka borrokatzeko konpromisoa. Kapitalak bere erara diseinatutako lan-merkatuaren oraina eta geroa makurra da oso, gutxi batzuek gizartearen gehiengo zabala esplotatzeko aukera izango baitute. Guk, ordea, ez dugu etsiko egoera horren aurrean, eta konpromisoa hartzen dugu langile klasearen lan-baldintzak hobetzeko eragile izango garela aurrerantzean ere.

78. Gure federazioko sektoreetan emakumeei soldata eta enplegu-baldintza kaskarragoak ezartzen zaizkie, estatistika guztiek agerian uzten dutenez, eta desoreka horri aurre egin behar diogu. Industriak soldaten desoreka horri aurre egiteko egin dezakeen ekarpenik handiena horixe bera litzateke: emakumeak industriara biltzeko bultzada irmoa ematea. Era berean, langile gizonezkoek, gure federazioan gehiengoa izanik, jabetu egin behar dute emakumeek ezin dutela horrela jarraitu, hain ordezkartza apala izaten eta baldintza prekarioagoak jasaten. Uste dugu lehentasunezkoa dela hori ere. Hori dela eta, gure antolaketa-lanean eta, beraz, negoziatio kolektiboan, ekintza eraginkorrak jasoko ditugu, gizarte honen erdia jasaten ari den diskriminazioa bertan behera uzten hasteko.

79. Etxetik hasi beharrean gara gainera, IEFen egituran oso-oso gutxi baitira emakumeak. Datozen urteetan, beraz, badugu lana, egoera hori erroto aldatzeko. Atal sindikaletara eta IEFren egiturara bertara gure sektoreetatik datozen emakume militanteak biltzea, horra gure erronka nagusia.

80. Eskala bikoitzen aurka ari gara borrokan, eta are indar handiagoz borrokatu beharrean izango gara etorkizunean. Etorkizunera begira izugarrizko traba dira eskala horiek, eta botere sindikala eraikitzeke oztipoa. Gaurtik hasita defendatu behar dugu enplegu duina,

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

eta sindikatua eraikitzeke gure ahalmena ere defendatu behar dugu, gaur eta bihar. Sindikalismo horiak prekarizazioaren konplize izan gaitezen nahi du, eta gure jendeak enpresetan prekarietatea hitzartu dezala bilatzen du.

81. Guk, ordea, bestelako enpresa eredu baten alde egiten dugu, salbuespenak salbuespen (eta horiek arrazoituak) langileei kontratu mugagabea eta eskubide berak eskainiko dizkien ereduaren alde. Enpresa berean lan egiten dutenei hitzarmen bera aplikatzearen alde, goi-zuzendaritzako langileak soilik salbuetsiz. Hori dela eta, geure egiten dugu *outsourcing*-enpresen, ABLEen, arrazoitu gabeko azpikontratazioen edo kontratu-eredu prekarioen aurkako borroka.

82. Orobat, lanaldia murriztearen alde ere jarraitu behar dugu borrokan. Elkartasunez, lana banatzeko. Iraultza digitalak, lanaldia murriztu ezean, enplegua murriztea ekarriko du. Era berean, ezezko irmoa eman behar diogu lanaldia handitzeari.

83. Malgutasunak suntsitu egiten du enplegua. Langile gutxiago nahi dituzte, haien esanetara eta denetarako prest. Langileok egutegirik ez izatea nahi dute, eta gogoan izan behar dugu bizitzeko egiten dugula lan eta ez alderantziz. Malgutasuna mugatzea edo aparteko orduak kentzea lortu dugun enpresetan, langileen kontratazioa berez etorri da, automatikoki; hori da jarraitu beharreko bidea.

84. Estatuko hitzarmenak ezartzeari aurre egiten jarraitu behar dugu. CCOO eta UGT oldartsu ari dira miseria zabaltzeko erasoan. Eraikuntzako estatuko hitzarmenak (2012ko erreforma baino aste gutxi batzuk lehenago sinatu zen), hainbat gai arautzen ditu eskusiban. Nabarmentzekoa da metaleko estatuko hitzarmena, arrisku handikoa baita Hego Euskal Herriko esparruetarako. ELA estatuko hitzarmena negoziatzearen erabat aurka dago eta, beraz, ez du mahaian parte hartzen, baina hala ere, deigarria da negoziazioak izango dituen ondorioen berri ematen diela langileei, eta, aldiz, CCOOk eta UGTk, isil-isilik egotea erabaki dutela. Horra hor langileei bizkar emanda isilean gauzatu nahi den negoziazio ilunaren beste adibide bat.

85. Gero eta enpresa gehiagok adosten dituzte estatuko enpresa-hitzarmenak, Hego Euskal Herriko sektoreko hitzarmenak saihesteko. Enpresa horiek, zeregin ugari betetzen dituztelarik, *outsourcing*-enpresen parte dira, eta, beraz, prekarizazioaren ordezkari gorenak. Federazioak bere egiten du Lan Harremanen Euskal Esparruaren aldeko borroka. Ez dugu onartzen estatalizazioaren bidez bultzatzen ari diren baldintzen prekarizazioa, eta gure helburuetako bat da Euskal Herriko langileei gure herrialdean negoziatutako hitzarmen kolektiboak aplikatzea beren lan-bizitzan zehar.

86. Kapitalismoak esplotazio modu berriak sortzen ditu, eta horiei ere aurre egin behar diegu. Telefonia mugikorraren munduan, adibidez, oso zabaldua daude autonomo faltsuak; konpainia batentzat soilik lan egiten duten pertsonak, baina enpresa horretako plantillako kide ez direnak. Badira auto-esplotazioa bultzatzen duten lan-harreman modu berriak. Hainbat hamarkadako borrokaren ondoren langile klaseak eskuratutako lorpen sozialak alde batera uzteko moduak dira. Autonomo faltsuak kasu askotan esplotatu egiten dituzte beren burua modernotasunaren aitzindaritzat duten enpresek, eta bakarturik eta babesik gabe geratzen dira. Sindikalismoa errealitate horiei erantzuteko jaio zen, eta geure egiten dugu kolektibo horiek antolatzeke erronka.

87. Nabarmentzekoa da, halaber, telelana zenbat hazi den. Lana eta bizitza pertsonala eta soziala uztartzeko diskurtso horrek bestelako egoerak ere ekarri ditu jardunean; izan ere, hainbat langilek lanaldi amaigabeak egiten dituzte, bakardadean, lankideekin inolako hartu-emanik gabe.

88. Gutxiengoan sinatutako akordioak, patronalari egindako oparia izateaz gain (sindikatu merkeena hauta baitezake), errespetu falta izugarria dira langileekiko. Gure irudiko, sindikalismo aldarrikatzaileak bete-beteko demokrazia indarrean izango duen gizartea babestu

eta gorde behar du. Gutxiengoan adostutako akordioen alde egiten dutenek ahuldu egiten dituzte mugimendu sindikala eta joko demokratikoaren beraren arauak. Egoera zailak bizi izan ditugu bai sektoreetan bai enpresetan, zuzendaritzak eta sindikatu sinatzaileak langile borrokalariak zigortzen eta, kasuren batean umiliatzen saiatu izan baitira. Gutxiengoan adostutako akordioei aurre egiten jarraituko dugu, eta, alde horretatik, ezinbestekoa da langile klasearekin lan pedagogikoa egitea. Negoziazio kolektiboan, langileen borondate demokratikoa errespetatzen ez bada, patronalak nahi duen erara moldatuko ditu negoziazioaren edukiak. Langileek sindikalismo borrokalariari ematen diotenean konfiantza, demokraziak enbarazu egiten dio patronalari, eta orduan, sindikatu merkeenekin sinatzea erabakitzen du.

89. Behar-beharrezkoa da lan munduan, oro har, eta enpresaren esparruan bereziki, euskara normalizatzea. Gure herriko berezko hizkuntza zokoratua dago, eta gainera, uste dugu lan munduan oso aurrerapauso gutxi eman dela. Neoliberalismoak berak asimilazioa eta kultura-uniformizazioa bultzatzen du, eta gutxiengoan kultura-ikurrak baztertzen ditu. Mundu plural eta anitzean sinesten dugu, kulturen arteko harreman aberasgarriak tartean direla, eta horregatik, uste dugu euskarak leku nabarmenagoa behar duela lan-munduan ere.

90. Militante gehiago bildu behar ditugu federaziora. Kongresu honek dei egiten die atal sindikalei enpresetan sindikatua gaztetzeko lan egin dezaten, baita atal sindikaletara emakumeak bil ditzaten ere. Aztertu egin behar dugu gure funtzionamendu arruntean zer elementu diren eragozpen objektibo emakumeek berdintasunezko baldintzetan parte hartu ahal izan dezaten.

91. Era berean, eta batez ere eraikuntzaren sektorean, buru-belarri egin behar dugu lan gure lankideak gizartean zabaltzen ari diren diskurtso arrazistetan jausi ez daitezen. Migratzaileak gure erakundera bildu behar ditugu pixkanaka.

92. Egiatzko urratsak eman behar ditugu -ari gara ematen enpresa batzuetan- euskara laneko hizkuntza izan dadin enpresetan, baita gure federazioan ere. Gure argitalpen guztiek elebidunak izan behar dute lurralde osoan. Eta federazioaren funtzionamenduan euskara gero eta gehiago erabiltzen dugun baloratzeko adierazleak sartu behar ditugu.

93. Internazionalistak gara. Giza sufrimendu guztiak sentitzen ditugu geure. Gure herriaren historian, hainbat belaunaldik migratu egin behar izan dute, miseriatik, gerratik edo jazarpenetik ihesi. Gizarte ireki baten alde egin behar dugu lan, Euskal Herritik kanpo jaio diren langileak etxean bezala senti daitezen. Eta haien egoera ahularen ondorioz esplotatuak izan ez daitezen egingo dugu lan bereziki. Gure afiliazioarekin ere egin behar dugu lan, arrazakeriazko eta gorrotozko mezuak, langile klasearen artean zatiketa besterik eragiten ez dutenak, baztertuak izan daitezen Euskal Herrian.

94. Gure planetan bizitzaren jasangarritasunaren alde lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu. Kapitalismoak neurrigabeko hazkundea eta planeta ustiatuz aberastasuna pilatzea defendatzen du, baina arrisku larria da hori. Funtsezkoa da industriaren eraldaketa bideratzea, industria bera eta gure planetarekiko errespetua bateragarriak izan daitezen.

95. Eraikuntzan, gaur egun inork ez du auzitan jartzen ELAk sektoreari buruz egindako diagnostikoa. Esplotazioaren aurkako gure pankartak ederki adierazten du zein den eguneroko jarduna lantokietan. Konpromiso irmoa dugu: hitzarmen kolektiboak aplikatu, langileen osasuna errespetatu eta patronalaren ez-betetzeak zigortuko dituen sektorea nahi dugu. Badakigu helburu horiek lortzea oso zaila izango dela, eta horregatik, gure erronka antolakuntza mailakoa da batez ere. Boterea sortu behar dugu. Patronalari eta administrazioei garestiago atera behar zaie esplotatzea, lan-legedia aplikatzea baino, hori da lortu

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

behar duguna. Garaipen garrantzitsu batzuk lortu ditugu, eta horiek Euskal Herriko lantoki guztietara zabaltzeko gai izan behar dugu.

4. Lanpostuak eta lan-baldintzak defendatzeko borrokari eutsiko diogu.

96. Milaka lanpostu daude kolokan uneotan Euskal Herrian. Gure jendearen sustengua defendatzeko borroka horretan aurre-aurreko lerroan egotea egokitu zaigu.

97. Ekonomiaren ikuskera neoliberala indarrean den honetan, enpresariak ez dute inolako erantzukizunik, eta administrazio publikoek ekonomian parte-hartze aktiborik ez bultzatzea erabaki dute, eta horren guztiaren ondorioz, industria-proiektuak galtzen ari dira etengabe.

98. Industriaren egoera, batez ere eskualde batzuetan, negargarria da, baina federazioak irmo jarraituko du industria-eredu jakin baten alde lanean, ingurumenarekiko eta gizartearekiko ardura eta konpromisoa agertuko duen industriaren alde, hain zuzen.

99. Azken lan- eta lege-erreformen eraginez zaildu egin da enpresak ixteko planteamenduen aurrean lanpostuak defendatzea. Epeak laburtu egin dira, eta enpresa-zuzendaritzek nahiz konkurtsoko administratzaileek eta, kasu askotan, administrazioak berak, modu aktiboan esku hartzen dute eta laguntzen dute langileak kaleratzeko prozesuetan.

100. Hurrengo kongresu-arte epean, etor litezkeen itxieren aurrean gure erantzuna hobetzen jarraitu beharko dugu. Enpresaren neurriaren arabera, idazkaritzako edo ETEetako arduradunek lidergo sendoa dute, federazioko arduradunek modu aktiboan parte hartzen dute eta kabinetearen eta zerbitzu juridikoen babes eta laguntza ezinbestekoa ere hor dugu; beraz, alde horretatik uste dugu lantalderik onena dugula egoera horiei aurre egiteko. Azken hamarkada honetan lortu dugun esperientzia kolektiboa oso lagungarri dugu eguneroko jardunean, eta halaxe izango da datozen urteetan ere.

101. Berretsi nahi dugu, orobat, neoliberalismoa ez dela bateragarria epe luzerako industria-politika zorrotzarekin. Merkatu librearen berak eta enpresa-jardueren gaineko kontrol publikorik batere ez egoteak eragiten du, kasu askotan, industria-proiektuak bertan beharra geratzea ekimen espekulatibo huts-hutsen mesedetan. Inbertsio-funtsak gero eta indar handiagoa hartzen ari dira gure herrialdeko industrian, epe motzerako irabazien aurreikuspenak bultzatuta, inondik ere. Multinazional handiak era guztietako tresnak ari dira baliatzen beren monopolioa sendotzeko eta lehiakideak paretik kentzeko; merkataritza libreko itunak, adibidez. Itun horien bidez industria-jarduera gero eta enpresa gutxiagoren eskutan geratzen ari da.

102. Finantzaketa publikorik ez dago, eta bankuek kaudimen handia duten enpresei baino ez dizkiete ematen kredituak; horren ondorioz, enpresak ixten ari dira, une jakin batean kreditua behar izan dutenean ez dietelako eman, eta itxi beste aukerarik ez dutelako izan.

103. Gaur egungo ereduaren aurrean bestelako aukera batzuk sortzeko borroka bultzatzen ari da ELA, eta IEFek bere egiten du borroka hori. Industria-sarea eta epe luzerako proiektuak bultzatuko dituen banku publikoaren alde egiten dugu apustu. Sektore estrategikoetan bultzada publikoa ezinbestekoa dela uste dugu. Eta zerga-iruzurraren aurkako borroka bultzatzea eta sozietateen gaineko zergaren bidez diru-bilketa handitzea ere ezinbestekoa dela uste dugu. Iruditzen zaigu erabat zinikoa dela patronalaren jarrera, alde batetik diru-laguntza publikoak eskatzea eta bestetik inolako zergarik ordaindu nahi ez izatea. Herrialde honek industria-politika behar du, ez propaganda.

104. Azkenik, gure jendea han eta hemen bere lanpostuei eusteko egiten ari den borroka indar handiagoz gizarteratzeko gai izan behar dugu. Itxiera bakoitza langile klase osoari eginiko erasotzat hartu behar du gizarteak, eta komunikazio eta sentsibilizazio lan hori

hobetu behar dugu. Galtzen den industria-proiektu bakoitza drama bat da gaur egungo langileentzat, baina baita etorkizunean enpresa horretan lan egingo zuketen beharginentzat ere.

105. Bestalde, patronalak badaki ELA dagoen lekuetan enpresa bat ixtea edo langileak kaleratzea askoz zailagoa dela, eta hurrengo kongresu-arteko epean, sendotu egin behar dugu ELAren posizio hori.

106. Alde horretatik, berretsi egiten dugu gure konpromiso politikoa, patronalak ez gaituela bidelagun izango enplegu-doikuntzak egiteko eta lantokiak ixteko. Zoritzarrez, uste dugu borroka hori gidatzen jarraitu beharko dugula, askotan bakar-bakarrik.

5. Prestakuntza

107. Prestakuntza sindikalari bultzada eman behar diogu, bai prestakuntza tekniko-juridikoari, bai antolamendu mailakoari eta ideologikoari. Pertsonak ahalduentzeko bidea da prestakuntza, gure proiektuarekin bat egiteko oinarria eta neoliberalismoari hobeto aurre egiteko tresna.

108. Azpimarratzekoa da prestakuntza ideologikoaren garrantzia. Balioak sendoak direnean, patronalaren tranpetan jausteko arriskua askoz txikiagoa da. Indibidualista eta alienatutik nahi gaituzte mundu honetan, eta norabidea zein den argi jakiteko gure iparrorratza da ideologia. Konpromisoa dugu gure jendea prestatzeko.

109. Halaber, uste dugu funtsezkoa dea esperientzia positiboak partekatzea. Arazoetan esku hartzeko gaitasuna, hori du indargune nagusietakoa gure sindikatuak. Gai izan behar dugu ondorioak ateratzeko eta mamitzeko, oinarri horiek lagungarri izan baitaitezke gure jendea prestatzeko eta prestakuntza horren bidez kapitalak jarritako erronkei aurre egiteko.

6. Lan-osasuna, enpresetako jardun sindikalaren ardatz

110. Dagoeneko 114 pertsona hil dira lan-istripuz kongresu-arteko epean (Kongresu Konfederalaren datua). Hotzikara eragiten du kopuruak. Eta istripu guztien muinean faktore bat dago: prekarietatea. Izozmendiaren punta erakusten du datuak. Lan-osasunak zehar-lerro nagusi bat izan behar du gure lan sindikalean. Gure enpresetan laneko osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten alderdiak zer egoeratan dauden aztertu behar dugu, haiei argazki zorrotz eta zehatza egin behar diegu, eta gai horiek jorratu behar ditugu gure eguneroko lanean. Lan-plangintzetan sartzen ari gara gai hau. Federazioak eta atal sindikalek modu sistematikoan egin behar dute lan. Mutuek lan-munduan betetzen duten eginkizuna salatzen jarraitu behar dugu, eta enpresetatik kanpora utzi behar ditugu.

7. Erresistentzia-kutxa, borrokarako gure tresna solidarioa

111. Izan bitez lerro hauek frankismoaren ondoren sindikatua birstortu zutenek eginiko lanaren aitortza. Sindikatu burujabe bat eraikitzen jakin zuten, bere erabakiak hartuko zituen, eta horretarako lerro sindikal propioari jarraitu zioten, alderdi politiko, gobernu eta patronalen morrontzari men egin gabe.

II. KONGRESUA

2017-12-19

DONOSTIA

112. Sindikatuaren apustu estrategikoetako bat erresistentzia-kutxa sortzea izan zen. ELAko kideontzat zaila da jardun sindikala ulertzea elkartasunezko tresna hori gabe, kutxa horri esker egiten baitiegu aurre soldatarik gabeko aldiei. ELAren bezalako erresistentzia-kutxa bat sortzea, denboran eustea, kopuru eta estaldura gero eta handiagoz hornitzea, hori guztia baliabideen kudeaketa serioaren adierazle da, eta sindikatuaren DNAren ezaugarria.

113. Sindikatua osatzen dugunok uste dugu gaur egungo eta etorkizuneko gatazkei eusteko kuota %25 gehitzea dela gure inbertsiorik onena. Greban dagoen ELAko afiliatu bakoitzak gainerako militanteen babesa eta laguntza jasotzen du; borroka guztiak guztionak dira.

8. Nazioarteko dimentsioa

114. Federazioko sektoreak nazioarteko sindikatueta kide izan dira historikoki, eta nazioarteko erakunde horiek mundu mailan afiliazio gehien duten sindikatuak izan dituzte partaideen artean.

115. Azken urteotan hainbat fusio izan dira, eta, horren ondorioz, langileok industriako federazio bat dugu, Industriall deritzona. ELA kide aktiboa da bai Industriall Europa elkarrean bai sindikatu beraren mundu mailako nazioarteko erakundean, Global Unión delakotan.

116. Era berean, eraikuntzako nazioarteko erakundeko kide ere bagara.

117. Antolakuntza aldetik, esan beharrean gara federazioak ez duela Nazioarteko Sail propioa. Hori dela eta, federazioan ardura nazionalak dituzten pertsona berberak dira nazioarteko harremanen arduradunak. Ukaezina da egoera horrek mugatu egiten duela gure lana; izan ere, agendak eta eguneroko lana gainezka ditugu, eta horrek ez digu aukerarik ematen kide garen erakundeetako jarduera guztiei nahiko genukeen bezala erantzuteko.

118. Nolanahi ere, ontzat ematen dugu nazioartean orain arte egin dugun lana. Azken urteotan topaketa sindikal askotan parte hartu dugu, beste erakunde batzuen kongresuetan ere bai, eta hurbilagotik jakin ahal izan dugu beste errealitate sindikal batzuen berri.

119. Hala Industriall erakundean nola Eraikuntzako nazioarteko erakundean alde nabarmenak daude gure jardun sindikalaren eta beste sindikatu kide askoren jardunaren artean. Ekimen sindikal berritzaile eta borrokalariak ere ezagutu ditugu, eta horien berri sokena jakiten saiatu gara.

120. Oraindik bere estaturik ez duen munduko nazio txiki bateko sindikatu nagusia gara. Boterearen aurkako gure jardun sindikalari buruz, nazio burujabe baten aldeko gure lanari buruz eta gure balio internazionalista sendoei buruz gehiago jakin nahi izan duten guztiek irekita izan dituzte ELAren ateak. ELAk mundu bidezkoago bat sortzeko lanean jarraitu behar du, neoliberalismoari irrimo aurre eginez; uste dugu hori dela mundu mailako jardun sindikalari egin diezaiokegun ekarpen handiena.

II. KONGRESUA

2017·12·19

DONOSTIA